Euskararen soziolinguistika, plangintza eta arautzea 19-20
Irakaslea: Ibon Manterola
Ikaslea: Irati Uribesalgo Muñoz

1. Soziolinguistikaren eta hizkuntza politika eta plangintzaren oinarriak
4. jarduera: Fishmanen RLS Iruritan

Irakurgaiak:

- Argiako artikulua: “Galdua zirudiena nola berreskuratu duten Iruritan”.

- Manterola & Berasategi (2011), "Hizkuntza gutxituen indarberritzea" [Eskuragarri Egela-ko “Irakurtzea komeni den materiala” atalean].

Erantzun beharreko galderak:

1. Sánchez Carrión “Txepetx”-ek” orain dela 40 urte Iruritan deskribatu zuen euskararen egoera Fishmanen GIDS edo BAEN delakoaren ze mailatan kokatuko zenuke?

Iruritako kasua Fishmanen GIDS eskalan 7.mailan kokatuko nuke; helduek euskara gaitasuna eta erabilera badituzten arren hizkuntza transmisio eta erabilera eten bat eman baita haurrak izateko adinean dauden gazteen artean batez ere, eta haurrekiko hizkuntza transmisioa etengo denaren arriskua egon daiteke.

2. Orain 40 bat urteko Iruritan ze faktore antzeman ditzakezu hizkuntza ordezkapenaren atzean?

Gerra Zibilaren osteko egoerak ez zuen Iruritan euskararen erabilera bultzatzera bat ere lagundu, erabiltzen zutenekiko isekek, burlek... nahita ez euskararen hizkuntza prestigioa gutxitu eta gutxietsi zituen baserritarren esparruko hizkuntza zela aurpegiratuz, besteak beste. Hala ere, bordei esker eutsi zion euskarak herri honetan.

3. Iruritako kasuan, Fishmanen BAEN erabilita, ze mailatan kokatuko zenuke indarberritze prozesuaren hasiera?

Indarberritze prozesuaren hasiera kasu honetan 5.mailan kokatuko nuke, hezkuntza eta eskolarizazioa euskaraz jasotzeko aukera izanik hizkuntza ohiturak alda daitezkeelako, beti ere etxeko hezkuntza ez formaletako esparruetan ere elikatzen bada haurraren hizkuntza erabilera eta komunitatean hizkuntzaren erabilera bultzatzeko nahik badago. Iruritan kale erabilerarako aukera dago eta gurasoek hizkuntza erabili ezean haurrei erakustea eta horretan heztea indarberritzearen gakoetako bat izan daitekeela uste dut.

4. Iruritako HINBEn eskolak izandako eragina ikusita, nola azalduko zenuke BAENeko 4.-5. mailen eta 6. mailaren arteko elkar-eragina?

Fishmanen arabera 6.maila esparru informaletako hizkuntza erabileraren ohituretara mugatzen da, 5.maila alfabetatzeari dagokio eta 4.a hezkuntza sistemakon sustapenari. Iruritako kasuan bereziki, 80ko hamarkadan eskola publikoan lanean zebiltzan maisu-maistra euskaldunen borondateak euskara hezkuntza sistema publikoan sartzen has zedin lagundu zuen. Honenbestez, 6.mailan zegoen hizkuntza informaltasun egoera horretatik irtetetn eta hezkuntza sisteman (4.maila) sartzen hasi zen.

5. BAEN eskalan aurrera/atzera egiteak ze inpaktu izan dezake hizkuntza baten corpusaren garapenean?

Esango nuke corpusaren garapenak egonkortasuna behar duela produkzioa aurrera eraman ahal izateko, eta BAEN eskalan atzera eta aurrera egiteak ez duela egonkortasuna eta batez ere beharrezkoa den estatusa lortzen laguntzen. Estatusa eta pribilegio linguistikoa oinarrizkoak dira komunitateak edozein hizkuntza begiz jotzeko edota begi onez ikusteko.

6. Iruritako kasu zehatza edota Euskal Herriko ikuspegi orokorragoa kontuan hartuta, zenbateraino dirudi baliagarria Fishmanen BAEN teoriak euskararen normalizazio prozesua azaltzeko?

Ados nago Fishmanen esanetan komunitateak hizkuntzaren indarberritzean duen garrantziarekin. BAEN eskala gizarte tipologia horretan dago oinarritua eta guztiz zentzuduna da, politikoki mila lege ezarri baitaitezke hizkuntza gutxitu baten indarberritze prozesuan laguntzeko, baina erabilera emango dion jendearen borondaterik gabe hizkuntza ez da identitatearen parte izango, eta identifikatua sentitzeak erabileran eta hizkuntzaren arrakastan laguntzen dute. Horregatik uste dut baliagarria dela oso Fishmanen BAEN teoria euskararen normalizazio prozesua azaltzeko.